

12 ARRAZOI LIBURUTEGI PUBLIKOAK MAITATZEKO

Liburutegiek gure askatasuna babesten dute, eta demokraziaren osasuna zaintzen laguntzen dute. Liburutegiek 12 arrazoi hauek ematen dizkigute haien alde egiteko eta gizartearentzat ezinbestekoak direla erakusteko:

1. Liburutegiek informazioa jasotzeko aukera ziurtatzen diete herritarrei, eta hori ezinbestekoa da herritarrek behar den informazioan oinarrituta erabakiak hartzeko.

2. Liburutegiek gizarte-taldeen arteko mugak apurtzen dituzte, eta berdin-berdin ematen diete zerbitzua denei: haurrei, familiei, adinduei, etorkinei, askotariko biztanleriei, askatasunaz gabetako edo informazioa eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak, gaixoei, itsuei, etxerik gabeei, eta abarri.

3. Liburutegiek aukera-berdintasunerako bidea errazten dute, zer klase edo mailatakoak diren eta zer erosteko ahalmen duten kontuan hartu gabe ematen baitiete zerbitzua erabiltzaileei.

4. Liburutegiek pentsamendu independentea sustatzen dute, gizabanakoa balioesten dute eta pentsaera bakarra saihesteko aukerak ematen dituzte, gutxiengoen kultura-joeren berri izateko aukera emanda.

5. Liburutegiek jakin-mina eragin, irudimena sustatu eta sormena bultzatzen dute.

6. Liburutegiek haurrek adimena martxan jartzea eragiten dute, liburutegia apartekoaren esparrua baita. Horrez gain, haurrak arduratsuak izatea sustatzen dute, eskaintzen dituzten material guztiak eskuratzeko txartela izateko aukera emanda.



7. Liburutegiek beren kostua baino gehiago itzultzen diote gizarteari. Negozio eta aukera ugari sortzen dira liburutegietako baliabideei esker.

8. Liburutegiek komunitateak sortitzakete; izan ere, behar duen informazioarekin eta besteekin lotzen du jendea.

9. Liburutegiek familiak batzea eragiten dute, askotariko laguntza-jarduerak egiten dituzte-eta, hala nola etxeko lanak egiteko laguntzak, alfabetatzeko aukera, guraso-eskolak, eskolaz kanpoko jarduerak, ipuin-kontalariak, irakurketa-klubak eta beste asko.

10. Liburutegiak tolerantzia-esparruak dira; izan ere, edozein erabiltzailek aurki dezake beretzat iraingarria den zerbait liburutegietako materialen artean.

11. Liburutegiek errespetu- eta lasaitasun-sentsazioa eta atsegin intelektualaren sentipena pizten dituzte, santutegien antzera. Liburutegian, gure pentsamenduekin bakarka egoten gara, tokia ezezagunekin partekatuz.

12. Liburutegiek iragana hartzen dute barnean, baita babestu ere. Iragana ezagutzeak lehen egingadako akatsak orainaldian ez errepikatzeko balio du.